


EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA



BOLETÍN OFICIAL DEL PAÍS VASCO

Itundutako posta-ordaina: 8/98

Internet

Franqueo concertado: 8/98

Administrazioa: Donostia kalea, 1

www.euskadi.net

Administración: c/ Donostia-San Sebastián, 1

Legezko Gordailua: VI - 286 - 78 - VITORIA-GASTEIZ

Depósito Legal: VI - 286 - 78 - VITORIA-GASTEIZ

Xedapen Orokorrak

NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

Zk-5774

229/2002 DEKRETUA, urriaren 1ekoa, «LEADER +» ekimenaren ezarpena arteztu, eta Toki Ekintzako Taldeak nahiz beraien Landa Garapenerako Programak hautatzeko oinarritzko arauak ezartzen dituen. Horiek guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko LEADER + Programa Eragilean jasota daude (Europar Erkidegoaren Landa Garapenerako Ekimena).

Egituren Funtsei buruzko xedapen orokorrak ezartzen dituen Europar Batasuneko Kontseiluaren ekainaren 21eko 1260/1999 Araudiaren 20. artikulua dioen jarraiki, Europako Erkidegoetako Batzordeak, 2000ko apirilaren 14ko bilkuran, Landa Garapenerako «LEADER +» Erkidegoaren Ekimena ezartzeko orientabide, helburu, eremu eta motak erabaki zituen. Artezpide horiek guztiak Batzordeak Estatu-kideei helarazitako 2000ko apirilaren 14ko Komunikazioan (2000/C 139/05) jaso ziren.

Programa orokorrak osatze aldera, Europar Erkidegoaren LEADER + Ekimenak helburu dauka garapen jasagarri eta kalitateko estrategiak sustatzea. Estrategia horiek guztiak ingurune ekonomikoa hobetu eta natur nahiz kultur ondarea balioztatzeke era berriak saiatzearen baliatzen dira, enplegua sortu eta landa-komunitateen antolabidearen kalitatea hobetzeko asmoz.

Europar Erkidegoaren ekimen honen erabilera-eremua arautzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Programa Eragilea aurkeztu zitzaion Europako Erkidegoetako Batzordeari.

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

Nº-5774

DECRETO 229/2002, de 1 de octubre, por el que se regula la aplicación de la Iniciativa Comunitaria «LEADER +» y se establecen las normas básicas para la selección de los Grupos de Acción Local y sus Programas de Desarrollo Rural, incluidos en el Programa Operativo LEADER + de la Comunidad Autónoma del País Vasco (Iniciativa Comunitaria de Desarrollo Rural).

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 20 del Reglamento (CE) n.º.1260/1999 del Consejo, de 21 de junio, por el que se establecen las disposiciones generales sobre los Fondos Estructurales, la Comisión de las Comunidades Europeas adoptó en su reunión de 14 de abril de 2000 las orientaciones, objetivos, ámbito y modalidades de aplicación de la Iniciativa Comunitaria de Desarrollo Rural «LEADER +», cuyas directrices quedaron establecidas en la Comunicación de la Comisión a los Estados miembros de 14 de abril de 2000 (2000/C 139/05).

La Iniciativa Comunitaria LEADER +, como complemento a los programas generales, tiene por finalidad el fomento de las estrategias originales de desarrollo sostenible y de calidad, destinadas a la experimentación de nuevas formas de valoración del patrimonio natural y cultural de mejora del entorno económico, a fin de contribuir a la creación de empleo y de la mejora de la calidad de organización de las respectivas comunidades rurales.

Con objeto de articular la aplicación de esta Iniciativa Comunitaria se presentó a la Comisión de las Comunidades Europeas el Programa Operativo de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Landa Garapenerako Ekimena ezartzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko LEADER + Programa Eragile taxutu da Batzordearen 2000ko apirilaren 14ko Komunikazioaren 24 eta 25. artikuluekin bat etorritz; hortaz, programaren egitura bat dator eranskinak dioenarekin, eta edukia, berriz, Egituren Funtsei buruzko Araudi Orokorren 19. artikuluen 3 atalak dioenarekin. (1999ko ekainaren 21eko 1260/1999/EE Araudia).

2002ko otsailaren 8ko EB(2002) 210 Erabakia dela bide, Europako Erkidegoetako Batzordeak Euskal Autonomia Erkidegoko Programa Eragilea onartu du. Programa Eragileak ezarpen-baldintzak eta Nekazaritza Orientabide eta Bermerako Europako Funtzaren Orientabide Sailaren (NBBEF-O) nahiz EAeko Administrazioaren finantzaketa zehazten ditu.

Horren ondorioz, honako xedapen honek zehaztu asmo ditu Euskal Autonomia Erkidegoko 2. helburuko landa-eremuetan ezartzeko diren Landa Garapenerako Programak kudeatzen dituzten Toki Ekintzako Taldeek bete beharreko eskakizunak, bai eta programak aurkeztu eta hautatzeko arauak ere. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoan, Europako Erkidegoaren LEADER + Ekimenaren baitan, eskaintzen diren laguntzen araubidea ezarriko da.

Era berean, Aurrekontu Neurriei buruzko martxoaren 21eko 2/2002 Legeak urtarrilaren 23ko 1/2002 Legeari lotutako xedapen batzuk ematen ditu, euskal erakundeek jardunbidea bermatu, ekonomi eta gizarte garrantzi nahikoa duten jardueri ekin eta ziurtasun zein segurtasun juridikoz janzteko Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrek 2002ko ekitaldian. 2/2002 Legearen 1. artikulua ezartzen duenaren arabera, ordain eta konpromiso kreditu erantsiak emango dira, besteak beste, Euskadi Informazioaren eta Ezagutzaren Gizartearen izeneko planaren jarduketan gastu arruntak finantzatzeko. Nekazaritza eta Arrantza Sailaren eginkizuna atal horri dagokio.

Dekretu honek Europar Erkidegoaren araudia garratu eta betearazteko helburua duenez, Europar Batasuneko erakundeek unean-unean hartzen dituzten erabakien pean jarriko da horren edukia.

Hori dela bide, Landaberrik aurretiaz aldeko txostena emanda, Eusko Jaurlaritzaren 2002ko uztailaren 19ko Lege Batzorde Aholkulariaren aldeko irizpenarekin bat etorritz, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren ekimenez eta Gobernu Kontseiluak 2002ko urriaren 1eko bilkuran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

El Programa Operativo LEADER + de la Comunidad Autónoma del País Vasco (CAPV) para la aplicación de la Iniciativa de Desarrollo Rural está redactado de conformidad con los artículos 24 y 25 de la Comunicación de la Comisión de 14 de abril de 2000; su estructura se adapta a lo dispuesto en su Anexo y su contenido a lo previsto en el apartado 3 del artículo 19 del Reglamento General de los Fondos Estructurales (Reglamento (CE) n.º. 1260/1999 del Consejo, de 21 de junio de 1999).

Mediante Decisión número C(2002) 210 de 8 de febrero de 2002, la Comisión de las Comunidades Europeas ha aprobado el Programa Operativo de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el que se explicitan las condiciones de aplicación y la participación financiera de la Sección de Orientación del Fondo Europeo de Orientación y Garantía Agrícola (FEOGA-O) y de la Administración de la CAPV.

En consecuencia, la presente disposición tiene por objeto establecer los requisitos que han de reunir los Grupos de Acción Local responsables de la gestión de los Programas de Desarrollo Rural que hayan de aplicarse en las zonas rurales del objetivo 2 de la Comunidad Autónoma del País Vasco así como las normas relativas a la presentación y selección de los mismos. A su vez, se establece el régimen de ayudas a conceder en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco dentro del marco de la Iniciativa Comunitaria LEADER +.

A su vez, la Ley 2/2002, de 21 de marzo, de medidas presupuestarias, establece una serie de disposiciones con relación a la Ley 1/2002, de 23 de enero, con objeto de asegurar el funcionamiento de las instituciones vascas, abordar actuaciones de considerable importancia económica y social y, asimismo, dotar de certidumbre y seguridad jurídica a la ejecución de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi durante el ejercicio 2002. La Ley 2/2002 establece en su artículo 1 que se concederán créditos adicionales de pago y compromiso para financiar el gasto corriente destinado, entre otros, a las actuaciones derivadas de la ejecución del Plan Euskadi en la Sociedad de la Información y el Conocimiento, englobándose dentro de este capítulo la intervención del Departamento de Agricultura y Pesca.

En la medida en que el presente Decreto pretende el desarrollo y ejecución de normativa comunitaria, su contenido estará sometido a las decisiones que en cada momento pudieran adoptarse por las Instituciones de la Unión Europea.

En su virtud, previo informe favorable de Landaberrri, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco, a propuesta del Consejero de Agricultura y Pesca, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión de 1 de octubre de 2002,

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA
ARAU OROKORRAK**1. artikulua.**– Xedea.

Honako dekretu honek helburu dauka Europako Erkidegoaren «LEADER +» Ekimena Euskal Autonomia Erkidegoan nola aplikatu arautzea. Horretarako, Toki Ekintzako Taldeak eta beraien Landa Garapenerako Programak aurkeztu eta hautatzeko arauak ezarriko ditu. Bestalde, Europako Erkidegoetako Batzordearen 2002ko otsailaren 8ko erabakia dela bide onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoko Programa Eragilearen barruko dirulaguntzak arautuko ditu.

2. artikulua.– Lurralde-esparrua.

1.- Honako dekretua Euskal Autonomia Erkidegoko 2. helburuko landa-eremuetan aplikatuko da. 2. helburuko landa-eremuak 2000ko martxoaren 14ko Erabakia (2000/264/EE) dela bide onartu ziren, 1260/1999/EE Araudiaren 4. artikuluen 6 eta 9 c) atalen itzalean. Bertan, gainbeheran dauden edo egitura-arazoak dituzten 2. helburuko landa-eremuek beste beharreko baldintzak zehazten dira.

I. eranskinean jasota daude honako dekretu honek ukitzen dituen 2. helburuko landa-eremuak.

2.- Ingurune, ekonomia eta gizarte ikusmoldea kon-tuan hartuta, eremuek multzo homogeen batean egon behar dute, nolabaiteko koherentzia eduki eta masa kritiko nahikoa izan, giza baliabide, finantzabide eta ekonomi baliabideei dagokienez, garapen estrategia bidegarriari eusteko modukoak.

3.- Salbuespenez eta behar bezala arrazoituriko gertaeretan izan ezean, 10.000 biztanletik 100.000ra bizi behar dute landa-eremuan. Nolanahi ere, landa-eremuak zehazteko, koherentzia irizpideak, ez besterik, aintzat hartuko dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoak Programa Eragileak Europar Erkidegoaren ekimena ezartzeko lurraldeei buruz dioenari men egin beharko zaio.

4.- Honako xedapen hauen arabera hautaturiko landa-garapenerako programa baten barruko udalerriek edo haien zatiek ezin dute parte hartu Europar Erkidegoaren «LEADER +» Ekimenaren beste programa bazuetan.

3. artikulua.– Indarraldia.

Honako dekretu honek indarra izango du Europar Erkidegoaren «LEADER +» Ekimenak irauten duen bitartean, Batzordearen 2002ko otsailaren 8ko 2002/210/EE Erabakiarekin bat etorriz. Aipatu erabakiak Euskal Autonomia Erkidegoko LEADER + Programa Eragilea (2000-2006) – Europar Erkidegoaren Landa Garapenerako Ekimena onetsi zuen, oso-osorik gauzatu arte.

DISPONGO:

CAPÍTULO I
NORMAS GENERALES**Artículo 1.**– Objeto.

El presente Decreto tiene por objeto regular la aplicación de la Iniciativa Comunitaria «LEADER +» en la Comunidad Autónoma del País Vasco, estableciendo las normas para la presentación y selección de los Grupos de Acción Local y de sus respectivos Programas de Desarrollo Rural, así como las normas para la concesión de las ayudas englobadas en el Programa Operativo de la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por Decisión de la Comisión de 8 de febrero de 2002.

Artículo 2.– Ámbito geográfico.

1.– El presente Decreto se aplicará en las zonas rurales del objetivo 2 del País Vasco, aprobadas mediante Decisión de 14 de marzo de 2000 (2000/264/CE), en virtud de los apartados 6 y 9 c) del artículo 4 del Reglamento (CE) n.º. 1260/1999, que define los criterios que deben cumplir las zonas rurales en declive o con problemas estructurales del objetivo 2.

En el Anexo I se relacionan los municipios de las zonas rurales del objetivo 2 incluidas en el ámbito de aplicación del presente Decreto.

2.– Las zonas deberán constituir un conjunto homogéneo desde el punto de vista físico, económico y social, guardar cierta coherencia y presentar una masa crítica suficiente en términos de recursos humanos, financieros y económicos, capaz de mantener una estrategia de desarrollo viable.

3.– Salvo con carácter excepcional y en circunstancias convenientemente justificadas, la población de la zona estará comprendida entre 10.000 y 100.000 habitantes. En todo caso, en su delimitación se tendrán únicamente en consideración los criterios de coherencia y se respetará lo dispuesto por la Comunidad Autónoma del País Vasco en su Programa Operativo en cuanto a los territorios susceptibles de aplicación de esta Iniciativa Comunitaria.

4.– Ningún municipio, o parte del mismo, incluido en un programa de desarrollo rural seleccionado conforme a lo dispuesto en la presente disposición, podrá estar incluido en otros programas de la Iniciativa Comunitaria «LEADER +».

Artículo 3.– Vigencia.

El presente Decreto se aplicará durante la vigencia de la Iniciativa Comunitaria «LEADER +», conforme a la Decisión de la Comisión 2002/210/CE de 8 de febrero de 2002, por la que se aprueba el Programa Operativo LEADER + de la Comunidad Autónoma del País Vasco (2000-2006) – Iniciativa Comunitaria de Desarrollo Rural, hasta su total ejecución.

4. artikulua.— Baliabide ekonomikoak.

Helburu honetarako erabiltzen diren baliabide ekonomikoak NBBEF-Orientabidetik eta ekitaldi bakoitzean ondore horretarako Euskal autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan ezarritako kredituetatik hartuko dira.

Aurrekontuko ekitaldian, guztira emango diren laguntzen zenbatekoa ezin da aurrekontuko izendapenetik edo, hala badagokio, eguneratutako zenbatekotik gorakoa izan, indarrean dagoen legeriaren arabera aurrekontu-aldarazpenik onartuz gero. Beraz, ez da bidezkoa laguntzarik ematea zenbatekoa agortzen denean. Landa Garapenerako zuzendariaren ebazpenak iragarriko du kredituen amaiera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Hala ere, honako dekretu honek ezarritako baldintza guztiak bete eta diruz lagungarri diren eskaerak baliabide ekonomikoen urriagatik ukatzen badira, aldeko ebazpena jaso dezakete hurrengo ekitaldian, betiere, eskatzaileak Landa Garapenerako Zuzendaritzara idazkia bidali eta bertan eskaeraren baldintza berberei eutsiko diela adierazten badu. Hori eginez gero, lehen deialdiko data hartuko da kontuan.

5. artikulua.— Hartzaileak.

Toki Ekintzako Taldeek proposaturiko proiektuen titularrak izango dira laguntzen amaierako hartzaile edo onuradunak, III. eranskinak ezarritako laguntza araubideari jarraiki, Landa Garapenerako Zuzendaritzak aldeko ebazpena eman eta horrela jakinarazi ondoren. Bestalde, proiektu horiek direla eta egiten diren gastuak kontuan hartuko dira jasotako laguntzak zuritzeko.

Toki Ekintzako Taldeak 8. artikulua dioenaren arabera hautatuko dira, eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailarekiko lankidetzak hitzarmen egokia sinatuko dute.

II. KAPITULUA

TOKI EKINTZAKO TALDEAK ETA LANDA GARAPENERAKO PROGRAMAK

6. artikulua.— Toki Ekintzako Taldeak.

1.— Deialdian aurkeztu eta hautaturiko programak gauzatzeko erakundeak Toki Ekintzako Talde bilakatuko dira, 2000/C 139/05 Komunikazioak xedatzen dituen ondoretarako.

2.— Toki Ekintzako Taldeek, gutxienez, ondoko baldintzak bete behar dituzte programak aurkeztu ahal izateko:

a) Toki mailan ezarritako solaskide publiko eta pribatuaren talde orekatu eta adierazgarri batek osatu behar ditu. Solaskide horiek estrategia taxutu, landa-eremue-

Artículo 4.— Recursos económicos.

Los recursos económicos destinados a esta finalidad procederán de los Fondos de FEOGA-Orientación y de los créditos establecidos al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco para cada ejercicio.

El volumen total de las ayudas a conceder dentro de cada ejercicio presupuestario no excederá la correspondiente consignación o la que resulte de su actualización, en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias de conformidad con la legislación vigente. No procederá, por tanto, la concesión de nuevas ayudas una vez agotado dicho importe, publicándose el agotamiento del crédito en el Boletín Oficial del País Vasco mediante Resolución del Director de Desarrollo Rural.

No obstante, las solicitudes de ayuda que reúnan todos los requisitos para ser subvencionables conforme al presente Decreto y se denieguen únicamente por falta de recursos económicos, podrán ser resueltas favorablemente en el ejercicio económico siguiente, siempre y cuando el solicitante dirija un escrito a la Dirección de Desarrollo Rural manifestando su intención de mantener su solicitud en las mismas condiciones. En este caso, se entenderá que la fecha de solicitud es la de la primera convocatoria.

Artículo 5.— Beneficiarios.

Los beneficiarios finales de las ayudas serán los titulares de los proyectos que sean propuestos por los Grupos de Acción Local, de acuerdo con lo establecido en el Régimen de Ayudas del Anexo III, y sean resueltos y notificados por la Dirección de Desarrollo Rural, siendo los gastos que se realicen en la ejecución de dichos proyectos los que deban tenerse en cuenta para justificar las ayudas percibidas.

Dichos Grupos de Acción Local serán seleccionados de conformidad con lo previsto en el artículo 8, y suscribirán el oportuno Convenio de Colaboración con el Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco.

CAPÍTULO II

GRUPOS DE ACCIÓN LOCAL Y PROGRAMAS DE DESARROLLO RURAL

Artículo 6.— Grupos de Acción Local.

1.— Las entidades asociativas responsables de la presentación de los programas y de la ejecución de aquellos que resulten seleccionados adquirirán la condición de Grupos de Acción Local a los efectos de lo dispuesto en la Comunicación 2000/C 139/05.

2.— Los Grupos de Acción Local deberán reunir, al menos, los siguientes requisitos para la presentación de los Programas:

a) Estar constituidos por un conjunto equilibrado y representativo de interlocutores públicos y privados implantados a escala local, que definan una estrategia, in-

tako biztanleei informazioa eta aholku eman, komunitateak mobilizatu eta sustatu behar dituzte, jardun-eremuaren garapen ekonomiko eta soziala erdieste aldera, eta enplegua sortzen edo bizi-kalitatea hobetzen duten inbertsio-proiektuak sustatu behar dituzte, garapen-programa baten esparruan.

b) Argiak izan behar dute eginkizunak eta erantzukizunak banatzen, eta, gainera, solaskideen ahalmen osoa bermatu behar da, haien esku utzitako eginkizun guztiak, baita finantza arlokoak ere, garatzea izan dezaten. Bestetik, jardunbide-prozeduren eraginkortasuna eta erabakiak hartzeko era bermatu beharko dira.

c) Administrazioz kanpoko ordezkariak zuzen edo zeharkakoa duten kide ekonomiko eta sozial pribatuak eta elkarte pribatuak osatu behar dituzte. Horiek guztiek gutxienez boto eskubideen erdia (%50) izan behar dute administrazio organoetan, hau da, ordezkariak pribatuak, gutxienez, erdia (%50) hartu behar du.

d) Estatutuetan irabazi-asmorik gabeko elkarteak dirrela agertu behar da. Xede horretarako, merkataritza jardueretan aritu arren, halako elkartetzat hartuko dira merkataritza jardueretatik hartutako guztizko etekin edo mozkinak merkataritza kanpoko erakunde-helburuetan inbertitzen dituztenak.

3.- Landa Garapenerako Programak bideratu behar dituzten Toki Ekintzako Talde hautatuek honako bete-behar hauek dituzte:

a) «LEADER +» ekimenari atxikitako sareetan txertratzea, eta haietan gogotik parte-hartzea. Horretarako, burutu diren edo abian diren ekintzei eta emaitzei buruzko informazio guztia sustapen eta eragin zelularen esku jarri beharko dute.

b) Jarduera oro egiaztatzeko modua eman behar diote Europako Erkidegoetako Batzordeari, baita Europako Erkidego, estatu nahiz autonomia erkidegoko kontrol-organoei ere.

c) Aparteko kontabilitatea erabili behar dute «LEADER +» ekimenaren ekintzei dagokienez.

d) Toki Erakundea osatzen duten kide zuzen edo ordezkari guztien artean, administrazio eta finantza ordezkaria hautatu behar dute, fondo publikoak kudeatu eta administratzeko ahalmenaz. Gastu publikoak kontrolatu eta fiskalizatzeko ahalmena duen pertsona bakar batek edo batzuek egin ahalgo dituzte eginkizun horiek.

4.- Horiez gain, Toki Ekintzako Taldeek bete beharko dituzte arloari dagozkion autonomia erkidegoko arauak, Europar Erkidegoko araudiak agintzen dituen administrazio, finantza, informazio, egiaztapen eta kontrol betebeharrak, eta bereziki, Batzordearen ekainaren 21eko 1260/1999 Araudia, egituren funtsen xedapen orokorrak ezartzen dituena, eta maiatzaren 17ko 1257/1999 Araudia, NBBEF – Orientabide eta Berme sailek landa garapena bultzatzeko ematen dituzten laguntzei buruzkoa.

formen y asesoren a la población rural, movilicen y estimulen a las comunidades en orden al desarrollo económico y social de su zona de actuación y promuevan la ejecución de proyectos de inversión que generen empleo o mejoren la calidad de vida, todo ello en el marco de un programa de desarrollo.

b) Ser transparentes en la atribución de funciones y responsabilidades, debiendo garantizarse, además, la plena capacidad de los interlocutores para asumir las tareas encomendadas incluidas las financieras, así como la eficacia de los mecanismos de funcionamiento y de toma de decisiones.

c) Estar compuestos por miembros económicos y sociales privados y de representación directa o indirectamente no administrativa, así como por asociaciones privadas, que representen en los órganos de administración al menos el 50% de los derechos de voto, es decir, como mínimo un 50% de representación privada.

d) Carecer estatutariamente de fines de lucro, entendiéndose como tal a aquellas entidades que, aunque desarrollen actividades de carácter mercantil, los beneficios resultantes de los mismos se inviertan en su totalidad en el cumplimiento de sus fines institucionales no comerciales.

3.- A los Grupos de Acción Local responsables de los Programas de Desarrollo Rural seleccionados les serán de aplicación las siguientes obligaciones:

a) Integrarse en las redes que se creen en el marco de la Iniciativa «LEADER +» y a participar en ellas de forma activa, mediante la puesta a disposición de la célula de promoción y animación, de toda la información necesaria sobre las acciones ya realizadas, o en curso de realización, y de los resultados obtenidos.

b) Facilitar la verificación de sus actuaciones por parte de la Comisión de las Comunidades Europeas y de los órganos de control comunitarios, estatales o autonómicos.

c) Llevar una contabilidad independiente para las acciones «LEADER +».

d) Nombrar, de entre sus miembros, directos o representados, que ostenten la condición de Entidad local, un responsable administrativo y financiero con capacidad para gestionar y administrar fondos públicos, cuyas funciones serán realizadas por una o varias personas con capacidad de control y fiscalización de gastos públicos.

4.- Los Grupos de Acción Local estarán sometidos además de a las normas autonómicas que les sean de aplicación, a las obligaciones administrativas, financieras y de información y de verificación y control derivadas de la normativa comunitaria y, en especial, del Reglamento 1260/1999, del Consejo, de 21 de junio, por el que se establecen disposiciones generales de los fondos estructurales, y del Reglamento 1257/1999, de 17 de mayo, sobre ayudas al desarrollo rural a cargo del FEOGA Orientación y Garantía.

7. artikulua.– Landa Garapenerako Programak.

1.– Honako dekretu honek araututakoen arabera aurkez eta hauta daitezkeen Landa Garapenerako Programek men egingo diote Europako Batzordeak estatu-kideei helarazitako apirilaren 14ko 2000/C 139/05 Komunikazioak xedatutakoei. Komunikazio horrek Europar Erkidegoaren «LEADER +» Landa Garapenerako Ekimenari buruzko jarraibideak zehazten ditu. Halaber, Europako Erkidegoetako Batzordearen otsailaren 8ko C(2002) 210 Erabakiak onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoko LEADER + Programa Eragilea (2000-2006) – Landa Garapenerako Europako Erkidegoaren Ekimenari men egin beharko diote.

2.– Landa garapenerako programek laguntzak kudeatzeko prozedurak zehaztu behar dituzte, eta horien barruan, jardunbideak eta erabakiak hartzeko modua, eginkizunak eta erantzukizunak, programa hedatzeko bideak, eskabideak jaso eta aztertzeko moduak, txosten tekniko-ekonomikoak gertatzeko era, proiektuak hautatzeko irizpideak, erabakiak bidezkozteko modua, erregistroak eta kontrolatzeko bideak.

Nolanahi ere, lankidetzaz, objektibotasun, inpartzialtasun, eraginkortasun, eragingarritasun, gardentasun, publikotasun eta lehia askearen abiaburuak bermatuko dira, eta prozedura guztien egitura eta gutxieneko edukiak II. eranskinak jasotako arauari egokituko zaizkio.

3.– Landa Garapenerako programak argi eta garbi islatu behar dituzte plana ezartzeko den eremuaren aukerak, gabeziak eta ahalbideak; ekimenaren bitartez lortu nahi diren berriarazko helburuen berri eman; abian diren edo aurreikusita dauden landa-garapenerako politikekin nola uztartzen diren azaldu; helburuak betetzeko estrategia adierazi; proposaturiko jardueren koherentzia eta gainbalioa agertu; eta ingurumenari nola eragingo dioten adierazi.

4.– Landa garapenerako programek ondoko ardatzak izango dituzte:

- a) Landa garapenerako estrategiak.
- b) Lurraldeen arteko eta estatuz gaindiko lankidetzaz.
- c) Sarean txertatzeko modua.

5.– Hautatzen diren programak baliatu behar dira ezarpen-eremuetako landa garapen jasagarria bultzatzeko, landa-ekonomia dibertsifikatuz. Xede horretarako, biztanleriari eutsi eta biztanleen errentak eta gizarte-ongizatea areagotuko dira, beste alde garatu batzuetako mailetara hurreratu edo haiekin parekatze aldera, betiere ingurune eta natur baliabideak zainduta.

6.– Programek bereiz zehaztuko dituzte gauzatzeko garapen-estrategiak. Horrela, azken hartzaile diren sustatzaileen pentzudako gastu edo inbertsio proiektuak eta Toki Ekintzako Taldearen ardurapeko programaren kudeaketa-sistema eta jardunbidea banakatuko dira. Toki Ekintzako Taldearen kudeaketak sortutako gastua ezin da, inola ere, taldearen esku jarritako zuzkidura publikoaren guztizko zenbatekoaren ehuneko 15etik gorakoa izan.

Artículo 7.– Programas de Desarrollo Rural.

1.– Los Programas de Desarrollo Rural que podrán ser objeto de presentación y selección de acuerdo con las normas que se establecen en el presente Decreto, se ajustarán a lo dispuesto en la Comunicación de la Comisión a los Estados miembros 2000/C 139/05, de 14 de abril, por la que se fijan las orientaciones sobre la Iniciativa Comunitaria de Desarrollo Rural «LEADER +» y en el Programa Operativo LEADER + de la Comunidad Autónoma del País Vasco (2000-2006) – Iniciativa Comunitaria de Desarrollo Rural, aprobado por Decisión C(2002) 210 de 8 de febrero, de la Comisión de las Comunidades Europeas.

2.– Los Programas de Desarrollo Rural deberán incluir procedimientos de gestión de ayudas que incluyan mecanismos de funcionamiento y toma de decisiones, funciones y responsabilidades, sistemas de divulgación del programa, recepción y estudio de solicitudes, elaboración de los informes técnico-económicos, criterios de selección de proyectos, motivación de decisiones, registros así como mecanismos de control.

En todo caso se garantizarán los principios de colaboración, objetividad, imparcialidad, eficacia, eficiencia, transparencia, publicidad y libre concurrencia y ajustarán su estructura y contenido mínimo a las normas que se recogen en el Anexo II.

3.– Los Programas de Desarrollo Rural deberán mostrar claramente las capacidades, deficiencias y potencialidades de la zona susceptible de aplicación, exponer los objetivos específicos perseguidos mediante la aplicación de la iniciativa, su articulación con las políticas de desarrollo rural ya en marcha o previstas, la estrategia aplicada para alcanzarlos, la coherencia y la plusvalía de las actividades propuestas y su repercusión sobre el medio ambiente.

4.– Los Programas de Desarrollo Rural se articularán sobre los siguientes ejes:

- a) Las estrategias de desarrollo rural.
- b) La cooperación interterritorial y transnacional.
- c) La integración en red.

5.– Los programas seleccionados deberán procurar el impulso de desarrollo rural y sostenido de las zonas de aplicación, a través de la diversificación de la economía rural, persiguiendo el mantenimiento de la población y elevando las rentas y el bienestar social de sus habitantes a niveles más próximos o equiparables a otras zonas más desarrolladas, asegurando la conservación del espacio y de los recursos naturales.

6.– Los programas determinarán de forma separada las estrategias de desarrollo a ejecutar mediante proyectos de gasto o inversión a cargo de promotores perceptores finales y el sistema de gestión y funcionamiento del programa a cargo del Grupo de Acción Local, cuyos gastos no podrán superar el 15 por 100 del importe total de las dotaciones públicas puestas a su disposición.

8. artikulua.— Toki Ekintzako Taldeak eta beraien Landa Garapenerako Programak hautatzea.

1.— Euskal Autonomia Erkidegoko LEADER + Programa Eragileak eta honako dekretu honek ezarritako oinarri-irizpideekin bat etorritz, Toki Ekintzako Taldeak eta beraien programak lehiaketa publikoz hautatuko dira, prozedura garden, ireki eta zorrotzaren bitartez, betiere taldeen jarduna Euskal Autonomia Erkidegoan ez beste inon gauzatzen bada.

2.— Toki Ekintzako Taldeak eta beraien Landa Garapenerako Programak hautatzeko erak ondoko arauak kontuan hartuko ditu:

a) Taldeek jarduten duten tokia aintzat hartuko da taldea hautatzeko. Izan ere, taldearen jardun-eremuak bat etorri behar du LEADER + programa ezartzeko eremuarekin, dekretu honen 2. artikulua arautzen duenari jarraiki. Taldeek jarduten duten lurraldean, gutxienez, 10.000 lagunek bizi behar dute.

b) Taldearen kalitatea ondoko irizpideen arabera neurtuko da:

1. Programaren dakartzan berrikuntzak.
2. Aurretiko eskarmentua landa-garapenean.
3. Programa kudeatzeko era.
4. Taldearen barne antolakuntzaren kalitatea.
5. Taldearen osaera (gutxienez, kide guztien erdiak (%50) sektore pribatukoak izan behar du).
6. Erabakiak hartzeko era.
7. Programa ezartzeko den eremuko sektore ekonomiko eta sozialen parte-hartzea.
8. Kudeatzeko prozedurak. Bereziki balioztatuko da taldeak proiektuak kontrolatzeko sistema eguneratua izatea, ondore horretarako sorturiko euskarrien bitartez, programa etengabe kudeatzeko modukoak direnentz.

9. Publizitate, lehia, lankidetzaz, objektibotasun, inpartzialtasun, eraginkortasun, eragingarritasun eta gardentasun abiaburuak bermatzen dituzten neurriak.

c) Programaren kalitatea ondoko hautaketa-irizpideen arabera neurtuko da:

1. Aurretiko diagnostikoa.
2. Programaren helburuak.
3. Estrategiaren kalitatea.
4. Aurkeztutako planak hautatutako alderdiekin bat ote datozen.
5. Taldeen osaera (gizon-emakumeek osaturiko taldeek izango dute lehentasuna).
6. Finantzatzeko diren ekintza-motak.

Artículo 8.— Selección de los Grupos de Acción Local y de sus Programas de Desarrollo Rural.

1.— De conformidad con las bases y criterios establecidos en el Programa Operativo LEADER + de la Comunidad Autónoma del País Vasco y en el presente Decreto, por convocatoria pública se procederá a la selección de los Grupos de Acción Local y sus respectivos Programas, mediante un procedimiento transparente, abierto y riguroso, siempre que su actuación se realice exclusivamente en la C.A.P.V.

2.— El proceso selectivo de los Grupos de Acción Local y sus Programas de Desarrollo Rural se ajustarán a las siguientes normas:

a) El territorio sobre el que actúen los Grupos será un aspecto clave a tener en cuenta para la selección del grupo, puesto que deberá coincidir con el territorio susceptible de aplicación del LEADER +, de conformidad con lo establecido en el artículo 2 del presente Decreto. El territorio sobre el que actúe cada uno de los grupos deberá tener una población mínima de 10.000 habitantes.

b) La calidad del grupo se analizará utilizando los siguientes criterios:

- 1.º Carácter piloto e innovador del Programa.
- 2.º Experiencia previa en desarrollo rural.
- 3.º Dispositivo de gestión propuesto.
- 4.º Calidad de la organización interna del grupo.
- 5.º Composición del grupo (como mínimo, el 50% de sus componentes debe provenir del sector privado).
- 6.º Proceso de toma de decisiones.
- 7.º Grado de implicación de los sectores económicos y sociales representativos de la zona en cuestión.
- 8.º Procedimientos de gestión, valorándose de forma especial que el grupo tenga en todo momento actualizado un sistema de control de proyectos a través de soportes informáticos diseñados para tal fin que permitan hacer el seguimiento continuo de la gestión del Programa.

9.º Medidas que garanticen los principios de publicidad, concurrencia, colaboración, objetividad, imparcialidad, eficacia, eficiencia y transparencia.

c) La calidad del Programa se medirá de conformidad con los siguientes criterios de selección:

- 1.º Diagnostico previo
- 2.º Objetivos del programa
- 3.º Calidad de la estrategia
- 4.º Concordancia de los planes presentados con los aspectos aglutinantes seleccionados
- 5.º Prioridad relativa a los colectivos de hombres y mujeres
- 6.º Tipos de acciones a financiar

7. Programaren pilotu-izaera.
 8. Europar Erkidegoko eta eskualdeko beste programa batzuekiko koherentzia, osagarritasuna eta uztartzeko aukera.
 9. Bertakoen parte-hartzea eta kideek eginiko ahalgina programa taxutzeko.
 10. Beste leku batzuetan erabiltzeko aukera.
 11. Bideragarritasun ekonomikoa eta jasangarritasuna.
 12. Gastu pribatuak programan parte hartzeko aukera.
 13. Proposatzen diren ekintzek ingurumenari ekaritzen dizkioten eraginak ebaluatzeko modua.
- d) Toki Ekintzako Taldeek honako alderdi hauen artean hautatu beharko dituzte programaren jarraibideak, betiere Programa Eragilearen ardatza, teknologia berriak eta informazioaren gizartea kontuan hartuta:
1. Ezaupide eta teknologia berriak erabiltzea, produktuen eta zerbitzuen lehiakortasuna ezarpen-eremuan areagotzarren.
 2. Landa-eremuetako bizitza-kalitatea hobetzea.
 3. Bertako produktuak balioztatzea, batez ere, ekoizpen-egitura txikiei merkatuan sartzeko aukera emanda, talde-ekintzen bidetik.
 4. Natur eta kultur baliabideak balioztatzea, baita Natura 2000 programak ezarritako erkidegoaren interresdun aldeetako ere.
- 3.– Toki Ekintzako Taldeek lankidetzaz, objektibotasun, inpartzialtasun, eraginkortasun, eragingarritasun, gardentasun, publikotasun eta lehia askearen abiaburuak bete behar dituzte. Horiek guztiak bermatzeko, laguntza araubidearen publikitateaz, kudeaketa prozedurak eta proiektuak balioztatzeko irizpideak agertu behar dituzte, oro har, jendeak jardueren berri izan dezan.
- 4.– Hautaketan, lurraldea, Toki Ekintzako Taldea eta Landa Garapenerako Programa aintzat hartuko dira, Programa Eragileak, honako dekretu honek eta egiten den deialdiak jasotzen dituzten hautapen-irizpideei jarraiki. Deialdiak hautapen-irizpideen garrantzia ezarriko du.
- 5.– Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailaren Landa Garapenerako Zuzendaritzak hautatuko ditu Toki Ekintzako Taldeak eta beraien Landa Garapenerako Programak, Landaberri aurkezten duen txosten loteslean oinarri harturik. Izan ere, Landaberri lankidetzaz eta erakundeen arteko koordinazio organoa da, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-garapeneraren arloan, Landa Garapenerari buruzko apirilaren 8ko 10/1998 Legeak ezarritakoaren arabera.
- 6.– Toki Ekintzako Taldeak eta Landa Garapenerako Programak hautatutakoan, akta egin, ebatzi, deialdia jakinarazi eta Landa Garapenerako zuzendariaren

- 7.º Carácter piloto del Programa
 - 8.º Coherencia, complementariedad y articulación con otros Programas Comunitarios y Regionales
 - 9.º Movilización local y esfuerzo de los asociados para la redacción del Programa
 - 10.º Transferibilidad
 - 11.º Viabilidad económica y carácter sostenible
 - 12.º Expectativas de participación de gasto privado en el Programa
 - 13.º Evaluación de los efectos sobre el medio ambiente de las acciones planteadas.
- d) Los Grupos de Acción Local podrán elegir entre los siguientes aspectos aglutinantes, teniendo siempre en cuenta el hilo conductor del Programa Operativo, las nuevas tecnologías y la sociedad de la información:
- 1.º Utilización de nuevos conocimientos y tecnologías, a fin de incrementar la competitividad de los productos y servicios en las comarcas de actuación,
 - 2.º Mejora de la calidad de vida en las zonas rurales,
 - 3.º Valorización de los productos locales, en particular, facilitando el acceso al mercado de las pequeñas estructuras de producción mediante actuaciones de tipo colectivo, y
 - 4.º Valorización de los recursos naturales y culturales, incluida la de las áreas de interés comunitario en el marco de Natura 2000.
- 3.– Los Grupos de Acción Local deberán garantizar los principios de colaboración, objetividad, imparcialidad, eficacia, eficiencia, transparencia, publicidad y libre concurrencia. Para ello deberán incluir, con respecto al público en general, la publicidad del régimen de ayudas, los procedimientos de gestión así como los criterios de valoración de los proyectos.
- 4.– En el proceso selectivo se valorará el territorio, el Grupo de Acción Local y el Programa de Desarrollo Rural, de conformidad con los criterios de selección incluidos en el Programa Operativo, en el presente Decreto y en la convocatoria que se realice, en la que se establecerá la ponderación de los criterios de selección.
- 5.– La selección de los Grupos de Acción Local y sus Programas se llevará a cabo por la Dirección de Desarrollo Rural del Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco a partir del informe de carácter vinculante que presente Landaberri, en su calidad de órgano de colaboración y coordinación interinstitucional en materia de desarrollo rural de la Comunidad Autónoma del País Vasco según establece la Ley 10/1998, de 8 de abril, de Desarrollo Rural.
- 6.– Una vez seleccionados los Grupos de Acción Local y los Programas de Desarrollo Rural, se formalizará la correspondiente acta, se resolverá y notificará la

ebazpena argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

7.– Gero, Nekazaritza eta Arrantza Sailak eta Toki Ekintzako Taldeek hitzarmen egokiak sinatuko dituzte. Hitzarmen horiek arestian aipatu ekimenaren baitako Toki Ekintzako Taldeen kudeaketa azalduko dute, eta laguntzen kudeaketa, kontrol eta artapen neurriak zein erantzukizunak ezarriko.

8.– Laguntzen kudeaketari dagokionez, azken hartzaileek Europako Batzordearen eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailaren kontrola eta egiaztapena ahalbidetu beharko dute. Bestetik, Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren finantza-kontrola eta EAEko Kontu Auzitegiaren fiskalizazioa ahalbidetu beharko dituzte.

9. artikulua.– Lurralde arteko eta nazioz gaindiko lankidetzaproiektuak hautatzea.

1.– Urteko deialdia zabaldu ondoren, Toki Ekintzako Taldeek lurralde arteko eta nazioz gaindiko lankidetzaproiektuak aurkeztea izango dute. Taldeetako bat koordinatzaile arituko da Nekazaritza eta Arrantza Sailaren aurrean; hala ere, proiektuak egitura juridiko erkide batez gauzatu ahalko dira. Hala, Toki Ekintzako talde guztiak elkar daitezke egitura horretan.

2.– Nekazaritza eta Arrantza Sailari eta, lurraldea delata, erakunde eskudunei dagokie proiektuak hautatzea.

3.– Proiektuetatik datozen laguntzen azken hartzaileek kontrol eta egiaztapen araubidea bete behar dute. Halaber, onuradunak ez du laguntza beren beregi onartu behar hartu ahal izateko. Laguntza onartutzat joko da, hartzaileak errefusatu ezean, jakinarazpena jasotzen denetik hamabost eguneko epean.

III. KAPITULUA LAGUNTZEN ARAUBIDEA

10. artikulua.– Laguntzen zer-nolakoak, motak eta baldintzak.

1.– Honako dekretu hau dela medio ematen diren laguntzak dirulaguntza ez-itzulgarriak dira.

2.– Landa Garapenerako programek dituzten lau ardatzetan, dekretu honek ondoko laguntza-motak eskaintzen ditu:

a) Gaitasunak eskuratzeko modua eta garapen programa dakartzaten garapen estrategiak gauzatzeko laguntzak.

b) Lurralde arteko eta nazioz gaindiko lankidetzabultzatzeko laguntzak.

c) Kudeaketa, artapena eta ebaluazioa egiteko laguntzak.

convocatoria y se procederá a la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la Resolución del Director de Desarrollo Rural.

7.– Posteriormente se suscribirán los correspondientes Convenios, entre el Departamento de Agricultura y Pesca y los Grupos de Acción Local. Dichos Convenios, que englobarán la gestión por parte de los Grupos de Acción Local de la mencionada Iniciativa, establecerán las normas de gestión, control y seguimiento de las ayudas y las respectivas responsabilidades.

8.– Los perceptores finales de las ayudas estarán sometidos al control y verificación, en cuanto a la gestión de las ayudas, de la Comisión Europea y del Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, así como al control financiero del Departamento de Hacienda y Administración Pública y a la fiscalización del Tribunal de Cuentas del País Vasco.

Artículo 9.– Selección de proyectos de cooperación interterritorial y transnacional.

1.– Los Grupos de Acción Local presentarán los proyectos de cooperación interterritorial y transnacional, una vez abierta la convocatoria anual. Uno de dichos grupos actuará como coordinador ante el Departamento de Agricultura y Pesca, sin perjuicio de que la ejecución de estos proyectos pueda realizarse bajo una estructura jurídica común, en la que estarán asociados los Grupos de Acción Local.

2.– La selección de estos proyectos corresponderá al Departamento de Agricultura y Pesca y a las Entidades competentes afectadas por razón del territorio.

3.– Los perceptores finales de las ayudas derivadas de estos proyectos estarán sometidos al régimen de control y verificación. Igualmente, no será necesaria la aceptación expresa por parte del beneficiario para la percepción de la ayuda, entendiéndose aceptada, salvo que el mismo no se oponga a ella en el plazo de quince días desde la recepción de la notificación.

CAPÍTULO III RÉGIMEN DE AYUDAS

Artículo 10.– Naturaleza, modalidades y condiciones de las ayudas.

1.– Las ayudas que se concedan en virtud del presente Decreto tendrán la consideración de subvenciones no reintegrables.

2.– De los cuatro ejes en los que se articulan los Programas de Desarrollo Rural, este Decreto recoge las siguientes modalidades de ayudas:

a) Ayudas destinadas a llevar a cabo estrategias de desarrollo, que incluyen la adquisición de capacidades y el programa de desarrollo.

b) Ayudas a la cooperación interterritorial y transnacional.

c) Ayudas a la gestión, seguimiento y evaluación.

3.- Landa garapenerako programek oinarri duten laugarren ardatzari dagokionez, 2000/C 139/05 Komunikazioak (sarean txertatzea) xedatzen duenaren arabera, LEADER + programaren onuradun guztiek gogotik parte hartu beharko dute eratzten diren sare guztietan. Ondore horretarako, egin diren edo abian diren ekintzei eta emaitzei buruzko informazio guztia eta jardueretako parte-hartzearen gaineko argibideak besteren eskura jarri behar dituzte. Horrez gain, parte hartu beharko dute aurrerantzean antolatzen diren jardunaldi eta mintegi guztietan. Ardatz hori ez da lagungarria, honako dekretu honek ezarritakoari jarraiki.

4.- Baldintzak eta diruz lagungarri diren gastuak EAEko LEADER + Programa Eragilean ageri dira, hain zuzen ere, programarekin batera onetsitako laguntza araubidean. Araubidea honako dekretu honen III. eranskinean ageri da.

Hala ere, Toki Ekintzako Taldeak eta beraien Landa Garapenerako Programak hautatutakoan, urteko deialdiak neurri zehatzak eta diruz lagungarri diren gastuak ezarriko ditu. Halaber, lehentasunak eta baremazioa zehaztuko ditu.

11. artikulua.— Gastuak direla-eta jarraitu beharreko arauak.

1.- Behar bezala balioztatzeko, hartzaileek proiektua gauzatzeko aurreikusten diren alderdien gaineko informazioa zehaztuko dute eskaeran, batez ere kostuei buruzkoa, aurrekontu eta proformako fakturak erantsita, eta, halaber, proiektua gauzatzeko aldiak zehaztuko dituzte.

2.- Programan aurkezten diren inbertsioak ezin dira hasi laguntza eskatzen den dataren aurretik. Toki Ekintzako taldeak egiaztatuko du egoera hori.

3.- Inbertsio guztiak Euskal Autonomia Erkidego 2. helburuko landa-eremuetan egin behar dira, honako dekretu honek eta Euskal Autonomia Erkidego LEADER + Programa Eragileak ezartzen dutenaren arabera.

4.- Enplegua sortzeko inbertsio proiektuak finantzatu badira, aurreikusitako lanpostuak benetan sortu beharko dira, eta horiei eutsi beharko zaie bost urtean, gutxienez.

5.- Diruz lagungarri diren inbertsio eta jarduerak gauzatu behar dira laguntza emateko ebazpenak ezartzen dituen epeen barruan. Bestetik, epe horiek eskaeraren baldintzei eta proiektua finantzatzeko erabiltzen diren kredituei egokitu behar zaizkie. Hala ere, arazoizko gertaerarik jazotzen bada, Landa Garapenerako zuzendariaren ebazpena dela medio, proiektua gauzatzeko luzapena onar daiteke, gehienez 18 hilabetekoa.

6.- Diruz laguntzen diren inbertsio eta jardueren helburuari eutsi beharko zaio, gutxienez, jarduerak gauzatu eta hurrengo bost urteetan.

3.- Respecto al cuarto eje en que se articulan los Programas de Desarrollo Rural, de acuerdo con lo dispuesto en la Comunicación 2000/C 139/05 (Integración en Red), todos los beneficiarios de LEADER + estarán obligados a participar de forma activa en las redes que se creen, a través de la puesta a disposición de toda la información necesaria sobre las acciones ya realizadas o en curso y los resultados obtenidos, así como en la implicación en las diversas actividades. Deberán participar de forma activa en los Encuentros y Seminarios que se organicen. Este eje no será objeto de ayuda de conformidad con lo establecido en el presente Decreto.

4.- Las condiciones y gastos subvencionables son aquellos que aparecen contemplados en el Programa Operativo LEADER + de la CAPV y, en concreto, en el régimen de ayudas aprobado junto con el mismo, que se recoge como Anexo III del presente Decreto.

Sin embargo, una vez seleccionados los Grupos de Acción Local y sus Programas de Desarrollo Local, en la convocatoria anual se establecerán las medidas concretas y los gastos subvencionables correspondientes, incluyendo los criterios de prioridad y baremación.

Artículo 11.— Reglas a seguir respecto a los gastos.

1.- Para su correcta valoración, los solicitantes facilitarán en su solicitud la información adecuada sobre las previsiones justificadas de ejecución del proyecto, en especial en lo relativo a los costes, a través de presupuestos, y/o facturas proforma, y sus correspondientes plazos de ejecución.

2.- Las inversiones presentadas al programa no podrán encontrarse iniciadas con anterioridad a la fecha de solicitud de ayuda. Esta situación se comprobará mediante certificación del Grupo de Acción Local.

3.- Las inversiones habrán de localizarse en los municipios de las zonas rurales del objetivo 2 del País Vasco, de conformidad con lo establecido en presente Decreto y en el Programa Operativo LEADER + de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

4.- La financiación de los proyectos de inversión vinculadas a la creación de empleo quedará condicionada a la efectiva creación de los puestos de trabajo proyectados así como al mantenimiento de los mismos durante un periodo mínimo de cinco años.

5.- Las inversiones y actividades auxiliares habrán de ejecutarse en los plazos previstos en la resolución de concesión de ayuda, acomodándose dichos plazos a las previsiones de la solicitud y a la naturaleza de los créditos destinados a su financiación. No obstante, cuando medie causa justificada, y por Resolución del Director de Desarrollo Rural, se podrá conceder prórroga para la ejecución, no superior a 18 meses.

6.- Deberá mantenerse el destino de las inversiones y actividades subvencionadas durante, al menos, los cinco años posteriores a su realización.

7.– Eskaera egiten duen pertsonak edo erakundeak beharrezko neurriak hartuko ditu eskuratutako ekipu eta materialak egokienak izan daitezen, kalitate, kostu eta mantentze-lanari dagokienez.

8.– Era berean, dekretu honen III. eranskinak jasozten dituen gainontzeko betekizun guztiak bete behar dira.

12. artikulua.– Eskaerak eta epea.

1.– Honako dekretu honek arautzen dituen laguntzei heltzeko eskaerak Toki Ekintzako Taldeari igorri behar zaizkio, eta hark hautatzen duen bulegoan aurkeztuko, behean adierazitako agiri guztiak erantsita dituela.

a) Eskaera inprimakia, behar bezala beterik.

b) Ordainketak libratzeko agiriak («Gainontzekoen Alta»).

c) Eskatzailearen (pertsona fisikoaren) NAN agiria- ren fotokopia.

d) Eskatzailea eratze-aldian dagoen pertsona juridikoa izanez gero, legezko ordezkariaren NAN agiria- ren fotokopia.

e) Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia eta, eskatzailea pertsona juridikoa izanez gero, erakundea erregistro publiko egokietan jasota dagoelako egiazta- giria.

f) Inbertsio edo jardueren azalpena eta egin behar- reko gastuen aurrekontua eta/edo proformako fakturak dakartzan proiektu edo oroitzatza.

g) Eskatzaileak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segu- rantzarekiko betebeharrak egunean dituelako egiazta- giria.

h) Helburu berberaz, estatuko, autonomiako edo to- kiko beste erakunde edo administrazioen aurrean aur- keztu diren laguntza-eskaeren zerrenda. Horrez gain, eskaeren egoera (ukatuta, erantzunaren zain edo eman- da) eta zenbatekoak zehaztu behar dira.

i) Baimenak, izen-emateak eta erregistroak, bai eta autonomia erkidegoak nahiz udalerrak jarduerari da- gokionez eskatzen dituen beste betekizun guztiak ere.

j) Inbertsioaren helburuari eusteko konpromisoa, gu- txienez, inbertsioa gauzatzen denetik 5 urtera.

k) Beharrezko dokumentu guztiak Toki Ekintzako Taldearen, Eusko Jaurlaritzaren Europar Batasuneko Batzordearen edo ezarritako kontrol-organoen esku ja- rriko dituelako konpromisoa, haiek argibideak lortu eta inbertsioa edo gastua egiaztatzea izan dezaten, lagun- tza ordaindu eta bost urte igaro arte.

l) Beste edozein dokumentu, Toki Ekintzako Taldeak beharrezko iritziz gero ebazpena arrazoiz hartzeko.

